

juateko lakemena, ta bertan igaro ebazan 5 urte.

Berea Amearen gurarija egizteko, jadedsi gura ixan eban (1849'gn.) Elosu (Gipuzkoa)ko jaupalburu (*artzi-preste*)ixatia; baña Jaun-goikua'k autetsifa eukan bera, ufuneko errijetan eta buñaldietan bere irakaskintza zabaltzeko, ta ezaban bere Amearen gurarija loftu.

1850'garen urteko udean, 23 urte ebazala etxian geratu zan bere gurasuakin, onek, ba, ikaskundia jaraituteko dirurik ezeuken-eta. Baña Calahorra'ko *Obispo* edo Gotzalliak jakin eban geure Balendin zan on eta adimen-zufa, ta beragana detu eban urte ofetako azkenko illabetian eta agindu eutsan *Logroño*'ko Ikastolako gogo-artezkarija ixateko.

1851'garen urtian (*abadia*) jauparija egin zan, eta 1853'gareuan egin ebazan Loyola'n Deun-Iniaki'ren gogo inarkunak (*ekertizainjo espiritualak*).

Eta eurak amaifuta Morey abeari (*pralliarri*) agertu eutsan Deun-Iniaki'ren gopatzin edo *kompañian* saftuteko asma aitu ebala, baña jakin erazoten eutsan, be, gastetan Deun-Domeka'renan saftzeko ixan eban gurea. Morey abeari, erantzun baño lenago, gogaldu eban ondo arazua Jaun-goikua'ren aurian, eta astiro gogalduta erantzum eutsan lenengo asmo ta gureari jaraituteko, au da, Domeka-Deuna'ren jauzkija afituteko.

Morey abearen errixija betetako Beriotoxa gastiak Ocaña'ra'ko bidia aitu eban, eta urte atako Ufilla-26'gn. Deun-Domeka'renaz jantzi ta 1854'gareneko Azilla-12 gn., 27 urte ebazala, zin-esan eta eskintzak egin ebazan.

Etxe onetan amaifu eban ikaskundia ta 1856 gko. Lotazilla-27'gn., 29 urteduna zala Pillipieterako urten zan Jauna'ren egija irakasteko.

Juan zan *bapor* edo ixontzijan Balendin enzelizaliak enzelkraz egiten eban iru lagun enzelidunekin.

Cadiz'tik urten baño lenago bere guraso maifiari aguf gozia bidaldu eutsan.

Baten, Elorio'ko *artzipreste* edo jaupalburubari esaten eutsan: *Betoz, betoz burdina ta suba ta ipernubaren anuñu ta asofe gusti gustijak... Jauna'ren ondasuno ta erukitasuna zinespako anai bati irakustioren, dan-dana.*

Epalla'ko 27'gn. eldu zan ixontzi edo *bapora* Java ugartera.

Manila'n gettau zan geure Balendin *Tung-Kin*'an Josu-Kisto'ren zineskintza irakatsi ta zabaltzeko. Gettauta gero bere Nagustjari lakemena eskatu eutsan lufalde atara juateko, eta bertan igaroko ebazan neke ta atsebagiak jakin-añen eta kistañen kaltez eguan asafia-añen ezaban atzerarik egin, eta 1857'gko. Azilla'n, 30 urte ebazala Manila'tik urten zan.

Lenago, bere Ama laztanari eskribidu edo idatzi eutsan esanaz: *Aguf, neure Ama: Ondo juañ bekin, eta ezegin buruba ausi neure gomuteas. Aguf; (karta) idaski onegaz opuf batcrako poza daukan, beste baterano. Zabaldu egin eure bi-jotza ondo yagon, ba, eure txikija.*

1858'gko. Bagilla-27'gn. Centuria'ko Gotzalle edo Obispuu autu eban.

1861'gn. ango agimendün nagusijak agindu uzaba argitaldu eban. Balendin'ak 34 urte ebazan.

Urte ofetako Ufilla-15'gn. arerrijuak oratu ta beste lagun batekin espetxian (*kartzelan*) saftu eban. Lentxubago-tik beste bat bai-eguan.

Irurak epaipetu ebazan ta erijotzaz zematuta.

Azilla'ko 1.º egunan il ebazan irurak. Euren burubak aga batzuntatik eskegita egon ziran, agirijan.

Kistañ zindo batzuk gorputz deunak erosi ta gabez iortzi edo lufpetu ebazan.

1862'gareneko Iralla'n eldu zan Bizka'i'ra Beriotoxa'ren erijotz deunaren izpafa edo bafija.

Illa ofetako 16'gareneko Batzaf Nagosijan, Elorio'ko al-dunak eskatu eban: 1.º Beriotoxa'ren jayo-urija zintzo ta zindo ixendetako. 2.º Bizkaya'k Zinopa edo *martiraren* gorpuba loftuteko alegala egijala, baña bera deunesteko bifa zan auzija asteke.

Batzaf osuak ontzat aitu ebazan asmuok.

Onek egizteko urten zan Beriotoxa'ren gorpuba Tunk-King'etik *bapor* edo ixontzi baten; baña ekatzak aitu eban eta ixontziko gixonak *karga* edo zamea zalakuan ure-tara jauñti eban.

Jaun-goikua'k, bana, egun gitxi-huru bigurtu eban gorpuba, ixontzija urten zan uri bertara.

Ordutik kistañ tunkindaraz ezeben gura itxi gorpu aintzatsuba. Gueñez, baña, bidaldu eban Europa'ra Ordóñez abeak (*pralliak*) olan betetan ebala elorjuañ ta bizkañaf gusti-otzen gura bixija.

1886'gareneko Bagilla-5 kn. eldu zan gorpuba Barcelo-na'ra ta ango enzelotarak abegi edef-edefa egin eutsen.

Ofa, labur-labur atzalduta Beriotoxa'taf Balendin'en bixizpafa.

2Nok agertu Josu-Kisto'ren alde igaro edo jasan ebazan neke ta atsebagiak? Jaun-goikua'ren alde bixi ixan zan eta Jaun-goikua'ren alde be bixitza emon eban; il zan.

Debatz edo Elexak Garilla-4'gn. egiten dautso jaya. Otoi dagitsagun geuk be geure Bizka'i onen alde, geure Euzkadi'ren alde. Eskatu dagitsogun berak maife eban Euzkerea piztu ta sendotu, garbitu ta zabaldu dadintzat, eta geure aberi au Jel-bidetik zintzo-zintzoro jarafurik, enzelotaf on gustijak mafero alkarituta, geure gurari betia, Jel-gurendea loftu dagiguntzat.

NERE MAITIA

Nere biotzak bai-du maife bat

biziro maife duana,
nere Aberi-izkuntz edefa
berdin-gabeko euzkera.
Berau eta nere asaben bidez
Goikoa'k eman didana,
nigan beronen gorde-lekua
beti biotza izango da.

Euzkera maife, euzkera edef
ene izkuntza kutuna,
euzko-abenda txit garbiaren
loirik-gabeko ikufa,
zurekin beti bizi nai det
il nai det iltzen ba-zera,
zuri bizitzen zintzo laguntzen
amai bedi bizi nerea.

Zeurea nazu, neurea zaitut,
Ama euzkera laztana
ludi guziko izkuntz-artean
zera edef-edefena;
nere maife txit maifagafia
nere izkuntza lenena,
Goikoa'ren zeu izan zaite
baña nere izkuntz azkena.

Deba.

Tene.